



Elkarlankidetzan eta ahaleginetan batu beharra aipatu zen Arrasaten

Garmendia: «Malgutasunaren muga herritarren borondatearen kontra joatea da»

Euskararen normalkuntza bermatzeko sektore guztien ahaleginak eta elkarlankidetzaren beharra aipatu ziren atzo Arrasaten Herrietako Euskara Elkarteei buruzko Jardunaldietan. Arlo honetan malgutasun beharra onartu zuen Mari Karmen Garmendiak baina «muga bat» jarritz: «Ez dugu inoiz amore emango aldaketa honek herritar gehienek borondatearen aurka joatea badakarkigu».

JOSE MARI PASTOR / ARRASATE

Erakunde publikoetako ordezkariak eta arlo guztietako euskaltzaleak bildu ziren atzo Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak euskararen sustapenerako lanean ari diren taldeen esperientziak eta irizpideez mintzatzeko antolatutako jardunaldien lehen egunean. Gaur bukatuko den bilera honetan 200 bat lagunek hartuko dute parte eta 17 ponentzia irakurriko dira.

Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Garbiñe Egibar Gipuzkoako Diputazioko Kultura zuzendaria, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea, Jose Mari Mujika AEDko lehendakaria eta Juan Jose Uriarte Arrasateko euskara batzordeburua izan ziren, besteak beste, sarrera ekitaldian. Euskadiko Kutxak Arrasaten duen egoitza nagusiko aretoan hainbat euskaltzale elkartu ziren euren ikuspuntu eta jokabideen berri elkarri emateko.

«EUSKARAREN BERRI ONA»

Goizeko hamarretan hasi zen sarrera ekitaldian Zubizarretak eta Garmendiak hitz egin zuten. Arrasateko alkatea AEDren esperientziak mintzatu zen, honek gizaritean izan duen islada aipatu. Zubizarretak orain arteko aurrerapausoak aipatu zituen oraindik ere egiteko dagoen bidea gogoratzeko. Horretarako arlo desberdinetako euskaldun eta euskaltzaleen lana txertatu beharraz jardun zuen herriko alkateak.

Mari Karmen Garmendiak «euskararen berri ontzat» jo zituen jardunaldiak. Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak mende honetako euskaltzalearen historia gogoratu zuen labur, gerra aurreko garaian Az-



Erakunde eta elkarteetako ordezkariak jardunaldien sarrera ekitaldian.

EDURNE KOCH

GAURKO EGITARAUA

10.00 Ponentzia: 'Euskara eta euskal kultura gizarite integratuziorako bide'. Erramun Baxoc EHUko irakasleak emango du.

11.00 Poema errezitaldia.

11.15 Ponentzia: 'Erdararen erabilera euskararen erabilera jokabide aldaketa: konportamendu-aldaketarako mekanismoak'. Imanol Agote HPINko teknikaria izango da hizlari.

12.15 Atsedenaldia.

12.30 Ponentzia: 'Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana'. Iñaki Arruti Lasarte-Oriako euskara arduraduna eta Fernando Muniozuren Ei-

barkoa ariko dira.

15.30 Ponentzia: 'Herrietako euskara elkarteentzako antolakuntza'. Joxe Angel Mikeo Debaguneko lehendakariak emango du.

16.15 Atsedenaldia.

16.45 Mahaingurua: 'Herrietako euskara elkarteentzako lehentasunak eta etorkizuna'. Mahaikideak: Joxe Etxeberria AEDko kidea, Andoni Mujika Durangoko Berbarokoa eta Avelino Urretxo Gasteizko Geu elkartekoa. Moderatzailea: Estepan Plazaola Bergarako Udaleko euskara arduraduna.

18.00 Amaiera ekitaldia.

kue, Kanpion, Urkixo eta Eleizalde egindako lan emankorra oinarritzat joz.

Azken urteotan euskarak geografikoki, demografikoki eta erabilera mailan ere aurrera egin duela adierazi zuen, ondoren hau nahikoa ez zela gehitzeko. Euskal Herriaren «berezko hizkuntzaren ondoan» beste bi mintzaira badaudela gaineratu zuen hizlariak «berezko hizkuntza» hori «gutxitua» dela esateko.

Garmendiak etorkizuneko erronkari heldu beharra aldarrikatu zuen, horretarako helburuak jarritz. Alde batetik, ondoko belaunaldiek euskararekin batera espainiera edo frantsesera eta hirugarren hizkuntza bat —ingelasa— menperatzea. «Bestetik,

erdaldunak direnek euskara ikastea nahi dugu», jarraitu zuen Jaurlaritzako ordezkariak. Honela benetako elkarren komunikazioa lortuko zela adierazi zuen Garmendiak eta ildo honetan «aitzindariat» jo zuen AEDk egindako lana.

Euskarak bizirik irauteko «adostasuna» lortzeko premia aipatu zuen, nahiz eta onartu gizaritean beti ez dela honela izaten. «Gure lana adostasunez egin nahi dugula ez dago zalantzan jartzetik baina gizarite modernoan erabateko adostasuna lortzea ez da beti erraza izaten. Horren aurrean, hala ere, hauxe esan nahiko genuke: hobe dela adostasunez lan egitea, baina denetara ere lan egitea dela kontua».

«EZ DUGU AMORE EMANGO»

Garmendiak egokitzapen beharrik aipatu zituen: «Guk geuk sarritan inork agindu gabe aldaketak egin izan ditugu esperientziak aldaketa premiazkoa zela erakutsi digulako. Beraz, inork ezingo digu sekulan leporatu malgutasunez jokatzeko ez dakigunik. Baina aldi berean esan nahiko nuke ez dugula inoiz amore emango aldaketak herritar gehienek borondatearen aurka jokatzeko baldin badakarkigu. Horretan ez gara inoiz makurtuko. Beraz mugak hortxe daude».

Malgutasun eta irmotasunaren arteko orekaren bilaketan Koldo Mitxelenaren hitzak oroitarazi zituen Garmendiak hitzaldiaren azken zatian: «Berak esan zigun honako hau: 'Haundikeriazko menturarik gabe iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia behar du gure hizkuntzak. Diglosiaren purgatorietatik ihesi goazela ez gaitze-la ghettoaren infernua erori'. Egia, arrazoi handia zuen Mitxelenak. Baina oso pozik nago zuen elkarte eta jardunaren filosofian hizkuntzaren normalkuntza ezezik gizarite bizitzarako oinarri-oinarritako eta gizalegezko printzipioak ere daudelako. Diglosiaren purgatoriotik ihesi goazela beraz, ez gaitzeen ghettoaren infernua erori, eta hain zuzen, hemendik aldarrikatzen dena ez da ghettoaren planteamendua, elkarbizitzarena baizik. Beraz zorionak eta segi hortan».

PUNUZ PUNTU

Iritziak eta diagnosis

Hona hemen atzo irakurritako ponentzietan aipatu ziren zenbait puntu:

- **KIKE AMONARRIZ** (Siadeco soziolinguista): «Gerra ondorengo mugimendu euskaltzalearen eta gerra aurrekoaren arteko loturak oso eskasak izan dira».
- **AXUN AIERBE** (Tolosako Galtzaundiko lehendakaria): «Edozein kultura euskaraz zabal daiteke».
- **IÑAKI MENDIGUREN** (itzultzailea): «Udal-komunikabide hutsak badira, arrisku handia dago egoera politikoen indar erlazioen gora-beheren menpe egoteko».
- **JABIER OZAETA** (AEDko idazkari nagusia): «Jakina da gaztaroan finkatzen dela hizkuntza-jokaera, eta behin finkatu ondoren, zaila dela, oso, aldatzea».
- **JUAN LUIS AREXOLA-LEIBA** (AEDko dinamizatzailea): «Uste izan da pentsakera ezberdinetako jendea bildu duen elkarteak erreibindikazio eta sensibiltzazio motibazio lanik bideratzea ez lu-keela posible izango».
- **XABIER AIZPURUA** (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko gobernu-talde teknikoko burua) euskararen erabilera eragiten duten oinarritako baldintzen diagnosisz: «Euskaldun elebakarrak ia guztiz desagertzen ari dira». «Egiturari dagozkion faktoreek norbanakoari dagozkio- nek baino eragin handiagoa dute euskararen erabilera». «Familian, lagunartean nahiz lanean euskara erabiltzeko beharrezkoa da solaskideen arteko guztiek edo ia guztiek euskaraz jakitea». «Euskaraz hitz egiteko beharrezkoa da euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egitea». «Gune soziolinguistiko bakoitzean euskarak duen indarrak eragin handia du euskararen eguneroko erabilera». «Norberaren harreman sarean gune soziolinguistikoaren eragina handia den arren, geuk egin eta alda ditzakegu geure harreman sareak». «Euskaldun berriek euskaraz baino errazago hitz egiten dute erdaraz». «Gaur egun duela hamar urte baino askoz ere euskaldun gehiago izan arren, euskararen galera ez da erabat geratu».